

osatu zuten, Renoir, Cezanne, Gauguin, Picasso, Matisse eta besteren margolarak bilduz. Hiritik zebiltzan musikari, margolari eta bestelako ekintzaile modernistak larunbat iluntzero biltzen ziren bertan; Pablo Picasso –adiskide min ziren–, Ernest Hemingway, F. Scott Fitzgerald, Ezra Pound eta beste. «Hain ziren arraroak koa-droak, hasieran horiek ez beste guztia begiratzen zuen batek», dio narratzaileak liburuan.

Bilkura horietako batean atera zen, hain justu, gerora Lehen Mundu Gerrak sakon markatutako idazleak izendatzeko geratutako *Belaunaldi galdua* kontzeptua. Steinek aurrean zituenei esan zien horixe zirela Gerra Handian borroka egin zuten gizon gazte horiek, belaunaldi galdua, alko-holetan itotzen ari zena –*Fiesta*. *Eguzkia jaikitzen da* (1964) nobelari finkatuko zuen gero Hemingwayk esamoldea.

#### Arrosa da arrosa da arrosa

Pennsylvanian jaio eta Kalifornian hazi bazen ere, bizitzaren zatirik handiena Europan igaro zuen Steinek. 29 urterekin finkatuz Parisen, anaiarekin, eta orduan hasi zen pisua irabazten mende berriak zekartzan eraldaketa artistikoen ingurumarian. Aurretik, Psikologia ikasketak egin zituen Harvarden, eta Medikuntza ikasketak Johns Hopkins Unibertsitatean –aspertuta, bertan behera utzi zituen–. William James izan zuen irakasle urte horietan, eta eragin agerikoa izan zuen hark Steinek landuko zuen idazketa esperimentalean. Jamesi egotzen zaizkion *idazketa automatikoa* eta *kontzientziaren korrontea* teoriak lotuta irakurri izan dira, hala, Steinen zenbait testu, baina egilea bera ez zen inoiz guztiz bat etorri. «Gizaki arruntarentzat idaztea aski konplikatu da modu automatikoa egin daitekeenik pentsatzeko».

la genero guztiak landu zituen, literatur ingelesaren tradizioa irauli nahian, eta lantzen ez ziren gaiak –homosexualitatea, esaterako– eta horiek ekartzeko moduak egin zuten bereizgarri haren aparteko estiloa; baita errepikapenak ere, zeina kubismoaren itzulpen literariotzat irakurri izan den. *Rose is a rose is a rose* (Arrosa da arrosa da arrosa), da, bada, haren esaldirik ezagunena, *Sacred Emily* poematik hartuta.

1935ean, hitzaldi bira bat egitera itzuli zen AEBetara, eta albiste izan zen haren bisita herrialdean; judua, beste emakume batekin bizi zena eta abangoardiako idazlea. Parisen hil zen, 1947an.

## Galderak bazkatzen

Irati Majuelo

**I**zaskun Igoa Jaimerenak irabazi zuen Donostia Kulturaren bosgarren saria, eta haren emaitza da *Hotza bazkatzen*, Balea Zuriak argitaratu berri duen poesia liburu. Ez da hori Igoa jasotzen duen lehendabiziko aitortza, baina bai, ordea, irakurleak duen lehenengo aukera idazlearen lan propio bat esku artean edukitzeko.

Hamar galderak egituratzen dute liburua, galdera bana kapituluko. Baina ez dute erantzun bakarrik azaleratzen. Izan ere, galdera zabalak hartzen ditu idazleak abiapuntutzat, kutsu existentsialista nabarmena dutenak, eta, beraz, askotariko erantzunak jaso ditzaketena. Horiek tiraka ontzen dira atal bakoitzeko poemak, baina ez dira hertsiki itaunei lotzen, eta, beraz, harri

bat uretara bota ostean sortzen diren olatuen gisara funtzionatzen dute, batzuk lehen erreplikatik gertu, beste asko ardatzetik urrun. Hots, erantzunak baino gehiago, hausnarketa solteak aurki daitezke poemotan bilduta, txinparta batetik sortutako



#### 'Hotza bazkatzen'

**Idazlea:** Izaskun Igoa.  
**Argitaletxea:** Balea Zuriak.

## Ikus-entzunezko bilduma zabalena

#### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**E**sku ahurrean ia osorik kabitzen den liburuxka da, mardultxoa, hori bai, bere berrehun eta berrogeita lau orrialderekin, tapa bigunetan bildua datorrena. Azala ere apal itxurakoa da, ertain kolore bakar, eta izenburua letra larri jarritako lelo erritmiko iradokitzailea, zabuan gabiltzanean kantatzen dugun esara baten antza duena. Ohartuko gara ere goian, eskuinetan beste borobil txo bat dagoela, QR kode batekin 174 bideo esarak inguratuta.

Barruan dakarren guztia ez dago antzematerik, ordea. Zeren ikaragarria da liburuxka honek eskaintzen diguna. Ikaragarria, kopuruz eta kalitatez. Aspaldi ez zela halako bilduma mardula argitaratzen. Eta orduantxe akor-

datzen gara QRaren ondoko zenbakiak liburuak piezekin grabatutako bideo kopurua adierazten duela, 174 ikusgarri praktikoa eredu-emaile. Ezin sinistuzkoa.

Alde batera utzita beste helburu batzuen arabera den *Ahotzak.eus* egitasmoa, esango nuke, okertzeko beldurrik gabe, gaur-gaurkoz *Din dilin dan* dela esku- eta dohainik dugun ahozko euskal literaturaren bilduma audiobisual zabalena.



#### 'Din dilin dan'

**Idazlea:** Pello Añorga.  
**Ilustratzailea:** Maite Rosende.  
**Argitaletxea:** Denonarte.

ideiak, batetik besterako loturak hari fin batek josten dituelarik. Kaosa du gaietako bat liburuak, eta egituraketan ere kaos puntu hori sumatzen da. Belarra bazkatzen duten abereen gisara, galderak gogoeta bilakatu arte murtzikatu ditu Igoak, hozkatu, itzuli-katu, txikitu... ia galdera bera desegin arte.

Hala, gai ugari lantzen ditu idazleak hamar ataletan zehar, galdera desberdinei erantzun arren, elkarren artean harreman durik agertzen direnak. Bilduma osoan nabarmentzen da ni poetiko indartsu bat, barne munduari behako kritiko zorrotza ematen diona, eta norberaren baitan gordetzen diren nitasun desberdinei zuzentzen zaiona. Ahots horren bidez mahai gainean jartzen ditu geure buruei begiratzen sortzen ditugun auto-engainuak, trankak eta berekoieria, inertzia es-tilo zuzen eta gordinean aurre eginez. Halaber, ahots horren tonuari jarraikiz azaleratzen dira gainerako gaiak ere, ikusarazten dituztenak egungo bizi-erritmoaren eta naturaren denboraren arteko talkak, kontsumismoaren zentzugabekeria, behar ez ditu-

gun behar faltasuek sortzen duten antsietatea edota pentsamendu eta jokaeren homogeneizazioa, besteak beste.

Hori dela eta, ez dira urriak natura, denbora edota distantziarekin erlazionatutako elementuak, poema-bildumako irudi, metafora eta sinbolo gehienak horietan oinarritzen baitira. Horien artean, aireak garrantzi berezia hartzen du liburu osoan, eta batik bat arnasak, haren bidez barne munduaren eta kanpoko errealtatearen lotura eta talka adierazten baititu idazleak. Sarri arnasestu edo itolarrir sentsazioen bidez islatzen da ideia hori: «Sartu dut airea/ arnasa hartu nahian. / [...] Irentsi dut, / hartu dut airezkoa den dena, / arnasa izan ezik».

Honenbestez, esan daiteke proposamen originala aurkeztu duela Igoak, barne mundu indartsu eta zorrotza erakusten duena, baita idazketarako gaitasun aske eta freskoa ere. Ambiguetaterik gabe mintzo da lehen liburu hau, hizkera zuzen eta katramilatu gabean, galdera abstraktuegiak gerta zitezkeen ihardespen personal eta ausartak bideratu dizkiena.

## Hitz gutxitan

#### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**I**az argitaratu zenean obra honen lehen liburukia, atsegin handiz irakurri nuen. Ez dakit zergatik, ez nion gure txoko honetan aipurik egin, eta, orain, bigarrena argitaratu berrian, ezin aukera galdu.

Ehun eta hirurogei orrialde dituen liburu luzanga da, tradizio klasikoak jasotako hogeita hamasei ipuinen egokitzapenak eskaintzen dituena. Zuri-beltzean agertzen dira ilustrazioak, bana ipuineko.

Izenburuaren haritik, ipuinok irakaspenekoak izateko boka-zioarekin eskaintzen dira. Guztiak ere laburrak dira, jatorrizkoaren moldapen sinplifikatuak, eta hizkuntza arazorik ez sortzeko moduan josiak. Eta, hala ere, proposamen aberatsa iruditzen zait. Ipuinok badute hausnarketa sustatzeko ahalmen nahikoa be-

ren biluztasuna barkatzeko eta, are, goraiatzeko.

Aurkitzen diodan eragozpena estetikoak da, zeren ilustrazioek bai joera antagonista erakusten baitituzte: badira gozotik gutxi duten Tim Burtonen antzekoak, eta badira erabat dultzeak diren bestetzuk. Azken horiek distorsioa sortzen dutela iruditzen zait, beste irakurle prototipo batentzat egokiak.



#### 'Mundua ulertzeko ipuinak 2'

**Idazlea:** Eloy Moreno. **Ilustratzailea:** Pablo Zerda. **Itzultzailea:** Fernando Rey Escalera. **Argitaletxea:** Denonarte.